

DIRU-SARRERAK

- **Zenbat eta nola ordaintzeko prest dago zuen bezeroa eskaintzen ari zareten produktuaren edo zerbitzuaren truke?**

Aplikazio hau jaisterakoan, kontu bat egin behar da. Momentu horretan diru aurrerapen txiki bat ordaindu beharko da, 1'50€-koa. Horretaz gain, premium sistema bat eskainiko zaie bezeroei, hori eskuratu nahian, beste diru kopuru bat ordaindu beharko litzateke. Kasu honetan, 2'50€ ordaindu beharko lirateke. Sistema honetaz aparte, hiruileko bakoitzean kuota bat ordaindu beharko da, 75 zentimokoa.

Gogoratu:

- Garrantzitsua da jakitea zenbat eta nola ordaintzeko prest dauden bezeroak eskaintzen diegunaren truke.

- Funtsean, bi diru-sarrera mota daude:

- Ordainketa bakarreko diru-sarrerak
- Ordainketa errepikariak

- Diru-sarrerak sortzeko modu anitzak dauzka enpresa batek:

- Aktiboen salmenta
- Erabileragatiko saria
- Harpidetzagatiko saria

- Mailegua, rentinga eta alokairua
- Lizentziak
- Broker edo komisio bidezko sariak
- Publizitatea

- Prezioei dagokienez, honela sailkatzen dira:

- Prezio finkoak
- Prezio dinamikoak

Ez ahaztu batzorde ebaluatzaileak baloratuko duena:

- Zentzuz eta zuhur definitzea zeintzuk diren proiektuaren diru-sarrera nagusiak, proiektuaren diru-sarrera bakoitzaren partaidetzaren port- zentajea zenbatekoa izango den haztatuz. Zuen proiektuak hasieran inbertsio handia behar izango balu, zuhurtziaz zenbatetsi behar duzue zeintzuk izango diren hasierako inbertsio horretara bideratutako diru-sarrerak eskuratzeko bideak.

IOIKANen kasu praktikoa:

Aktiboen salmenta da enpresaren diru-sarrera, hain zuzen ere, diseinu esklusiboko long ohol pertsonalizatuak dira beren aktiboak. Gainera, ordainketa bakarreko diru-sarrerak dira.